

- Proiektuarekin zerikusia duten dokumentuak bilatu eta aztertzea.
- Proiektuak burutzean, heziketa-ziklo honen berrezko teknikak kalitatez aplikatzea.
- Heziketa-ziklo honetako proiektuan sentikortasun artistiko-plastikoa erakustea.
- Zikloari dagozkion ezagutza teoriko-praktikoak eta artistikoak bateratzea.
- Bai planteamenduan bai eta proiektua burutzeko beharreko konponbideetan ere sormena eta irudimena bilatzeko ahalegina erakustea.
- Proiekta epeekiko, dauden baliabideekiko, kostuekiko eta dagokion benetako eskaeraren exijentziekiko egokituta eta eraginkortasunez planifikatzea.
- Proiekta txukun eta profesionaltasunez aurkeztea.
- Amaierako memorian, terminologia egokia era bilita norberaren ideiak argudiatu eta defendatzea.

Ikastetxeak, bere jarduera-programan, positibotzat ebaluatutako amaierako proiektuen erakusketa barne hartuko du. Erakusketa horretan, ikastetxeko irakaskuntzaldian zehar egindako lanaren ideia emateko beharreko material grafikoa bilduko duen dokumentazioa gaineratuko da, egindako lanaren erakusgarri izan dadin eta gainerako ikasleentzako erreferentzia gisa balio dezan.

- Buscar y analizar documentaciones relacionadas con el proyecto.
- Aplicar con calidad las técnicas de propias de este ciclo formativo en la realización del proyecto.
- Mostrar sensibilidad artístico-plástica en el proyecto de este ciclo formativo.
- Integrar los conocimientos teórico-prácticos y artísticos correspondientes al ciclo.
- Mostrar esfuerzo por la búsqueda de creatividad e imaginación, tanto en el planteamiento como en las soluciones necesarias para la realización del proyecto.
- Planificar el proyecto de forma adecuada y efectiva a los plazos existentes, los costes y a las exigencias de la demanda real de que se trate.
- Presentar el Proyecto con limpidez y profesionalidad.
- Argumentar y defender las propias ideas utilizando la terminología adecuada en la Memoria Final.

Los Centros fomentarán la inclusión en su Programa de Actividades de la Exposición de los Proyectos Finales evaluados positivamente, de la que formarán parte la documentación que incluye el material gráfico necesario para dar idea del trabajo realizado a lo largo del período de enseñanza en el Centro, con el fin de que sea exponente de la labor realizada y sirva de referencia para el resto del alumnado.

OSASUN SAILA

41

257/2004 DEKRETUA, abenduaren 21eko, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena.

Biozidak erregistratu, baimendu eta merkaturatzeko ebaluazio prozesua arautzen duen urriaren 11ko 1054/2002 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du 27. artikuluan: biozidak fabrikatu eta/edo formulatzeten dituzten lokalak eta instalazioak, erabilera profesionalako baimena duten biozidak biltegiratu edo merkaturatzten dituztenak eta arauz izendatutako biozida zerbitzuen enpresak erkidego autonomo bakoitzeko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatu behar dira, zeina osasun arloan eskumena duen agintaritzak kudeatuko baitu.

Errege Dekretu berorrek, 2. artikuluan, honako hau dio: substantzia aktiboak eta substantzia aktibo bat baino gehiago duten prestakinak —bezzeroari hornitzen zaizkion eran aurkeztutakoak— eta helburutzat suntsitza, indargabetzea, neutralizatza, eragina saihestea,

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

41

DECRETO 257/2004, de 21 de diciembre, por el que se crea el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas del País Vasco.

El Real Decreto 1054/2002, de 11 de octubre, por el que se regula el proceso de evaluación para el registro, autorización y comercialización de biocidas, establece en el artículo 27 que los locales o instalaciones donde se fabriquen y/o formulen biocidas, así como los que almacenen y/o comercialicen biocidas autorizados para uso profesional, y las empresas de servicios biocidas que así se determinen reglamentariamente, deberán inscribirse en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas de cada Comunidad Autónoma, que será gestionado por la autoridad sanitaria competente.

El Real Decreto 1054/2002 define, en su artículo 2, los biocidas como «las sustancias activas y preparados que contengan una ó más sustancias activas, presentados en la forma en que son suministrados al usuario, destinados a destruir, contrarrestar, neutralizar, impe-

edo baliabide kimiko edo biologikoen bidez organismo kaltegarrien gain beste era bateko kontrola izatea. Horri dagokionez, V. eranskinean hogeita hiru produktu bioziden zerrenda zehatz-mehatza agertzen da, erabilpen eremutik bazter utziz nekazaritzarakoak edo fitosanitarioak diren pestizidak.

1054/2002 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du, bere aldetik, 2000ko maiatzaren 14an hasi eta hamar urteko epean 3349/1983 Errege Dekretua (pestizidak fabrikatu, merkaturatu eta erabiltzeko araudi tekniko sanitarioari buruzkoa) eta etorkizunean izan ditzakeen aldaketak aplikatu ahal izango direla dekretu horretan araututako nekazaritzarakoek besteko produktu pestizidetan (biozidak), baldin eta epe horretan merkaturatutako substantzia aktiboak badituzte.

Dekretu horiek diotenaren haritik halabeharrezkoztat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzea Osasun Sailaren menpe. Erregistro berri horrek gaur egungo Establezimendu eta Zerbitzu Pestiziden Erregistro Ofiziala —foru aldundietako Nekazaritza sailen menpe dagoena— berregituratu beharra ekarriko du; izan ere, ingurunean erabiltzeko pestizidak, elikagaien higienean erabiltzeko pestizidak eta Legionella tratatzeko baimena duten produktu desinfektatzaleak, euren kontzeptualizazioa dela-eta, biozidatzat jozen dira 1054/2002 Errege Dekretuak ezarritako eran. Hortaz, pestizida kategoria horiekin jardungo duten establezimenduak eta zerbitzuak Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatu behar dira. Ondorio horretarako, dekretu honetan zehazten dena da Osasun Sailera lekuz aldatu behar direla nekazaritzarakoek besteko pestizida-enpresei eta —zerbitzuei (egun Establezimendu eta Zerbitzu Pestiziden Erregistroan inskribatutakoak) dagozkien expedienteak.

Bioziden kategoriak nekazaritzarakoek besteko pestizidak bere baitan hartzearekin apurtu egiten da pestizidaren hasiera bateko batasun kontzeptuala, 3349/1983 Errege Dekretuan eta bere aldaketetan tatuutakoa, non Osasun Sailaren eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren jardun bateratua ontzat ematen baitzen.

Esandakoarekin bat, ingurunean erabiltzeko pestizidekin, elikagaien higienean erabiltzeko pestizidekin eta Legionella tratatzeko baimena duten produktu desinfektatzaleekin tratamenduak burutzea helburu duten prestaketa ikastaroen homologazioa Osasun Sailaren esku geldituko da. Indargabetu egingo da, ondorioz, 1995eko otsailaren 28ko Agindua (1995eko martxoaren 21eko EHAA, 56.zk.).

Dekretu hau ematen da, eman ere, Euskal Autonomia Erkidegoak bere burua antolatzeko bereganaturik duen eskumen esklusiboaren indarrez, horixe jasotzen bai Autonomia Estatutuko 10.2 artikuluak, baina barne osasuneko arloan Estatuaren oinarrizko legedia garatzeko eta exekutatzeko eskumenari dagokionean Estatutuaren 18.1 artikuluak dioenaren indarrez.

dir la acción o ejercer un control de otro tipo sobre cualquier organismo nocivo por medios químicos o biológicos». A tal efecto, el anexo V contiene una lista exhaustiva de los veintitrés tipos de productos biocidas quedando excluidos de su ámbito de aplicación, los plaguicidas de uso agrícola o fitosanitarios.

La Disposición transitoria primera del Real Decreto 1054/2002 establece que durante un período de diez años, a partir del 14 de mayo de 2000, se podrá seguir aplicando el Real Decreto 3349/1983 (Reglamentación técnica sanitaria para la fabricación, comercialización y utilización de plaguicidas) y posteriores modificaciones, para los productos plaguicidas no agrícolas (biocidas) regulados en el mismo y que contengan sustancias activas comercializadas en la fecha indicada.

A tenor de la citada normativa se hace necesario crear el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, adscrito al Departamento de Sanidad. Este nuevo Registro va a determinar la reestructuración del actual Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Plaguicidas dependiente de los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales, atendiendo a que los denominados plaguicidas de uso ambiental y plaguicidas de uso en higiene alimentaria, así como los productos desinfectantes autorizados para el tratamiento de Legionella, quedan afectados por su conceptualización como biocidas de conformidad con lo que establece el Real Decreto 1054/2002. En consecuencia, los establecimientos y servicios que actúen con estas categorías de plaguicidas habrán de inscribirse en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas. A tal efecto, el presente Decreto determina el traslado al Departamento de Sanidad de los expedientes correspondientes a empresas y servicios de plaguicidas no agrícolas actualmente inscritos en el Registro de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

Habiendo absorbido la categoría de los biocidas a los plaguicidas no agrícolas, se rompe la unidad inicial del concepto plaguicida tal y como se configuró por el Real Decreto 3349/1983 y sus modificaciones, y que justificaba la actuación conjunta de los Departamentos de Sanidad y de Agricultura y Pesca.

Coherentemente con este planteamiento, la homologación de los cursos de capacitación para realizar tratamientos con plaguicidas de uso ambiental, plaguicidas de uso en higiene alimentaria y productos desinfectantes autorizados para el tratamiento de Legionella será realizada por el Departamento de Sanidad, derogándose, en esta materia, la Orden de 28 de febrero de 1995 (BOPV n.º 56, de 21 de marzo de 1995).

El presente Decreto se dicta en virtud de la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de autoorganización prevista en el artículo 10.2 del Estatuto de Autonomía, en relación con la competencia de desarrollo legislativo y ejecución de la legislación básica del Estado en materia de sanidad interior prevista en el artículo 18.1.

Dekretu honi aldeko irizpena eman diote foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

Ondorioz, Osasun sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko abenduaren 21ean egindako bileran aztertu eta onartuz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen da, Osasun Sailari atxikita.

2. artikulua.— Biozidak fabrikatu eta/edo formulatzen dituzten lokalak eta instalazioak, erabilera profesionalerako baimena duten biozidak biltegiratu edo merkaturatzentenak eta arauz izendatutako biozida zerbitzuen enpresak Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatu behar dira, biozidak erregistratu, baimendu eta merkaturatzeko ebaluazio prozesua arautzeari buruzko urriaren 11ko 1054/2002 Errege Dekretuaren arabera.

3. artikulua.— Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala Osasun Publikoko Zuzendaritzak kudeatuko du, Osasun Sailaren lurralte zuzendaritzetako Osasun Publikoko zuzendariordezen bidez.

4. artikulua.— Osasun sailburuaren aginduz emanago dira Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzeko arauak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.— Espedienteak bidaltzea.

Dekretu honek indarra hartu eta hilabeteko epean Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresen dokumentazioa bidaliko diote Osasun Sailari Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak, nekazaritzarakoek besteko pestizidak fabrikatu, formulatu, biltegiratu, merkaturatu eta/edo aplikatzeko jarduerak gauzatuko dituztenena, hain zuzen ere.

Bigarrena.— Nekazaritzarakoek besteko pestizida aplikatzaleen prestakuntza ikastaroak homologatzea.

Osasun Publikoko Zuzendaritzari dagokio inguruan erabiltzeko pestizidak, elikagaien higienean erabiltzeko pestizidak eta Legionella tratatzeko baimena duten produktu desinfektatzailak aplikatza helburu duten prestakuntza ikastaroen homologazio expedienteak tramitatu eta ebaaztea, indarrean dauden legeetan jasotakoaren arabera.

Hirugarrena.— Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretua aldatzea.

Azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuko 11 c artikuluak honelako erredakzioa izango du aurrerantzean:

El presente Decreto ha sido informado favorablemente por las Diputaciones Forales y el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 21 de diciembre de 2004,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se crea el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, adscrito al Departamento de Sanidad.

Artículo 2.— Deberán inscribirse en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas los locales o instalaciones donde se fabriquen y/o formulen biocidas, así como los que almacenen y/o comercialicen biocidas autorizados para uso profesional y las empresas de servicios biocidas, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1054/2002, de 11 de octubre, por el que se regula el proceso de evaluación para el registro, autorización y comercialización de biocidas.

Artículo 3.— El Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas será gestionado por la Dirección de Salud Pública, a través de las Subdirecciones de Salud Pública de las Direcciones Territoriales del Departamento de Sanidad.

Artículo 4.— Por Orden del Consejero de Sanidad se dictarán las normas que regulen la organización y funcionamiento del Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Remisión de expedientes.

Las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa remitirán al Departamento de Sanidad, en el plazo de un mes desde la entrada en vigor del presente Decreto, la documentación correspondiente a las empresas inscritas en el Registro de Establecimientos y Servicios Plaguicidas que realicen actividades de fabricación, formulación, almacenamiento, comercialización y/o aplicación de plaguicidas no agrícolas.

Segunda.— Homologación de cursos de formación de aplicadores de plaguicidas no agrícolas.

Corresponderá a la Dirección de Salud Pública la tramitación y resolución de los expedientes de homologación de los cursos de capacitación para aplicación de plaguicidas de uso ambiental, plaguicidas de uso en higiene alimentaria y productos desinfectantes autorizados para el tratamiento de Legionella, de conformidad con lo previsto en la legislación vigente.

Tercera.— Modificación del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad.

El artículo 11 c del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, queda redactado de la siguiente manera:

c) Agintaritza sanitarioa den aldetik, indarrean da-goen legerian aurreikusitako ahalmen administratiboak erabiltzea kontrol sanitarioako, erregistrorako, arriskuen ebaluaziorako eta parte-hartze publikorako, on-doko kasuetan: elikagaien higiene eta segurtasunean, uren kontsumo publikoan, inguruneararen osasun-egorren eta osasun publikoarekin erlazionatutako gainera-ko jarduketetan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lebenengoa.— Establezimendu eta zerbitzu biozidak Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatzea.

Biozidak fabrikatu, formulatu, biltzagiratu, merkaturatu eta/edo aplikatzea helburu duten jarduerak garatzeko establezimendu eta zerbitzuak arauz ezarritako irizpideekin bat etorri inskribatuko dira. Aldez aurretik erabakia hartu beharko da erkidego mailan bioziden substantzia aktiboak 1054/2002 Errege Dekretuko I, IA eta IB eranskinetan sartzeaz, zertarako eta produktu biozidak Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatzeko, V. eranskinaren araberako helburuarekin.

1054/2002 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako aldi baterako epeak diraen artean, honako hauek inskribatu behar dira Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean: erabilera profesionalerako baimena izan eta nekazaritarakoez bestekoak diren pestizidak fabrikatu, formulatu, biltzagiratu, merkaturatu eta/edo aplikatzeko jarduerak garatzen dituzten establezimenduak eta zerbitzuak, 2000ko maiatzaren 14a baino lehenago merkaturatutako substantzia aktiboak badituzte, betiere.

Bigarrena.— Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialaren funtzionamendua.

Harik eta 4. artikuluan aipatzen den agindua eman arte, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistroaren funtzionamenduari, Dekretu honetan ezarritakoa urrezten ez badu, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1990eko martxoaren 8ko Agindua aplikatuko zaio, zeina, bestalde, Izurriak Hiltzeko Enpresa eta Zerbitzuen Erregistroan inskribatua eta jarduteko arauak ematen dituen 1995eko otsailaren 27ko Aginduz aldatu baitzen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lebenengoa.— Indargabetu egiten da, nekazaritzarako besteko pestizidei dagokienez, Industri, Nekazaritza eta Arrantza eta Osasun sailburuen 1995eko otsailaren 28ko Agindua, izurri-hilkariekin tratamenduak burutzeko gaitasunaren egiatzapena arautu eta ikastaroak antolatzeko arauak ematen dituena.

Bigarrena.— Indargabetu egiten dira, halaber, nekazaritzarako besteko pestizidei dagokienez, Izurri-karietako Merkataldegi eta Zerbitzuen Errolda inskri-

c) Desempeñar, como autoridad sanitaria, las facultades administrativas previstas en la legislación vigente dirigidas al control sanitario y registro, evaluación de riesgos e intervención pública en la higiene y seguridad alimentaria, aguas de consumo público, salubridad del medio ambiente, biocidas y demás actuaciones relacionadas con la salud pública.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.— Inscripción de establecimientos y servicios biocidas en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas.

La inscripción de los diferentes tipos de establecimientos y servicios que desarrollen actividades de fabricación, formulación, almacenamiento, comercialización y/o aplicación de biocidas, se realizará de conformidad con los criterios que se determinen de forma reglamentaria, y una vez se adopte la decisión a nivel comunitario sobre la inclusión o no de las sustancias activas de biocidas en los anexos I, IA y IB del Real Decreto 1054/2002, para que los productos biocidas se inscriban en el Registro Oficial de Biocidas con su correspondiente finalidad de acuerdo al anexo V.

Durante el periodo transitorio previsto en la Disposición Transitoria primera del Real Decreto 1054/2002, se inscribirán en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas, los establecimientos y servicios que desarrollen actividades de fabricación, formulación, almacenamiento, comercialización y/o aplicación de plaguicidas no agrícolas autorizados para uso profesional (plaguicidas de uso ambiental, uso en higiene alimentaria y productos desinfectantes autorizados para el tratamiento de Legionella), que contengan sustancias activas comercializadas antes de la fecha 14 de mayo de 2000.

Segunda.— Funcionamiento del Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas.

En tanto no se dicte la Orden a que se refiere el artículo 4, será aplicable al funcionamiento del Registro de Establecimientos y Servicios Biocidas, en lo que no se oponga a lo establecido en el presente Decreto, la Orden de 8 de marzo de 1990, del Consejero de Agricultura y Pesca, modificada por la Orden de 27 de febrero de 1995, por la que se dictan normas para la inscripción y funcionamiento del Registro de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.— Queda derogada la Orden de 28 de febrero de 1995, de los Consejeros de Industria, Agricultura y Pesca y de Sanidad, por la que se regula la acreditación de la capacitación para realizar tratamientos con plaguicidas y se dictan normas para la organización de cursos, en la materia concerniente a los plaguicidas no agrícolas.

Segunda.— Queda derogada la Orden de 8 de marzo de 1990, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se dictan normas para la inscripción y funciona-

batu eta jarduteko arauak ematen dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1990eko martxoaren 8ko Agindua, eta hori aldatzen duen 1995eko otsailaren 27ko Agindua. Indargabetze honek, bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera, dekretu honetako 4. artikuluan jasotako agindua indarra hartzerakoan izango du eragina.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M^a INCLÁN IRIBAR.

miento del Registro de Establecimientos y Servicios Plaguicidas y la Orden 27 de febrero de 1995 que la modifica, en la materia concerniente a los plaguicidas no agrícolas. La presente derogación, y de conformidad con lo establecido en la Disposición Transitoria segunda, será efectiva a la entrada en vigor de la Orden que se prevé en el artículo 4 del presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M^a INCLÁN IRIBAR.

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

42

AGINDUA, 2004ko abenduaren 22koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomía Erkidegoan errepideko bidaiai-garraio publikoaren barruan, bederatzi jarlekutik gorako eskatu ahalako zerbitzuetarako, eta erabilera bereziko zerbitzu erregularretarako tarifak igotzeko dena.

Euskal Autonomía Erkidegoan bederatzi jarlekutik gorako ibilgailuetan egiten den errepideko bidaiaien herri arteko garraio publikoan, eskatu ahalakoetan zein erabilera bereziko erregularretan, kostu-egitura osatzen duten zenbait elementu aldatu egin dira. Horatz, eta arloko hainbat elkartek hala eskatu dutenez, bidezko da indarrean dauden tarifak igotzea.

Ondorioz, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 4.1 artikuluak ematen di- dan eskumena erabiliz, eta Errepideko Bidaiai Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 4.1 eta 48. artikuluak kontuan izanik, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomía Erkidegoan bidaiaien herri arteko garraio-zerbitzu publiko, eskatu ahalakoetan zein erabilera bereziko erregularretan honako formula hau aplikatu beharko da gehieneko tarifa lortzeko:

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

42

ORDEN de 22 de diciembre de 2004, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se elevan las tarifas de referencia en los transportes públicos discretionarios de viajeros por carretera de más de nueve plazas, así como en los transportes públicos regulares de viajeros de uso especial, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La variación de algunos de los componentes de la estructura de costes en los transportes públicos discretionarios y regulares de uso especial de viajeros por carretera de más de nueve plazas dentro de la Comunidad Autónoma, de carácter interurbano, aconseja, a petición de las diferentes asociaciones del sector, elevar las tarifas vigentes.

En su virtud, y en ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 4.1 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, puesto en relación con los artículos 4.1 y 48 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera.

DISPONGO:

Artículo 1.º— En los transportes públicos discretionarios y regulares de uso especial de viajeros de carácter interurbano, que se desarrollen dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la tarifa máxima se obtendrá aplicando la siguiente fórmula: